a participar. No olvidemos que, al inicio, él se niega a unir sus fuerzas a castellanos y aragoneses. En primer lugar, Arnaldo Amalario, arzobispo de Narbona y legado papal, conocido por aplastar con mano de hierro a los cátaros en las tierras del Languedoc, visita en persona al soberano de Navarra. Por lo que pueden deducirse presiones del Papa para tomar parte en la campaña militar. Por otra, creo que el aislamiento político de Sancho le obliga en cierta manera a participar también en ella, y con toda probabilidad hubo negociaciones entre el navarro y el castellano en los meses o semanas previas. De hecho, el rey de Castilla le devuelve algunos castillos después de la victoria en Las Navas.

Es llamativo que Sancho parte de Navarra tarde, cuando la campaña está ya en marcha, y que alcanza al ejército cruzado cuando ya había tomado las fortalezas de Malagón y Calatrava.

Evidentemente, el nexo que unía a estos reinos era la fe y la conciencia de que se enfrentaban a un enemigo común al mando de una fuerza militar muy considerable que, llegado el caso, podría avanzar hacia el norte para implantar el islam a golpe de espada. Así que, en mi opinión, hay que analizar esta conjunción de factores para encontrar una respuesta.

**¿A este monarca navarro le faltó la sagacidad política de su padre Sancho VI el Sabio frente a tantos enemigos y tan poderosos?**

Si nos ceñimos a las palabras del cronista Jiménez de Rada, Sancho era «valiente y fuerte con la espada, pero obstinado en su propia voluntad».

En mi opinión, fue un rey que se vio abrumado por los acontecimientos que le tocó padecer y que, en inferioridad militar, hubo de enfrentar primero una ofensiva conjunta de aragoneses y castellanos a los pocos años de ascender al trono, y la del ejército de Alfonso VIII de Castilla al año siguiente. Ello le forzó a tomar decisiones drásticas o temerarias, según se mire, como puede ser ese viaje a tierras almohades en persona, mientras se producía el ataque de Castilla por la frontera occidental. Pero no seré yo quien lo juzgue.

Por el contrario, fue durante su reinado cuando se intensificó la presencia navarra en Ultrapuertos, donde varios nobles del otro lado de los Pirineos le juraron vasallaje. O, por ejemplo, logró sanear las cuentas y hacer que Navarra pasara del endeudamiento al superávit.

Por último, creo que cargó para siempre con el dolor de la derrota, con el estigma de haber perdido los territorios que le legó su padre, que, con tanto esfuerzo militar

y diplomático, había mantenido durante su reinado.

**¿Qué faceta del rey navarro le ha sorprendido más o le ha llamado más la atención?**

Entre otros aspectos, lo que he mencionado antes, esa capacidad que tuvo para reorganizar el reino tras la conquista castellana de los territorios occidentales, la cual le permitió sanear las cuentas y pasar del endeudamiento al superávit. Incluso realizar préstamos a otros monarcas, como al aragonés Pedro II, quien le entregó en prenda varios castillos y, al no poder devolverle la cantidad acordada, le permitió a Sancho recuperar fortalezas y adquirir otras tantas. He ahí el ejemplo de Petilla de Aragón, que, por este hecho, hoy pertenece a Navarra.

**Al escribir su novela ha contado con el asesoramiento de expertos como Iñaki Sagredo. ¿Cómo ha resultado esa colaboración escritor-historiadores?**

Para mí resulta un auténtico honor y un privilegio te-

ner un contacto tan directo y cercano y poder contar con profesionales como Iñaki, persona a la que admiro desde hace mucho. Arqueólogo, historiador y, como digo yo, caballero navarro del siglo XXI, quien de manera incansable lleva 30 años investigando y divulgando la historia de nuestro viejo reino. Rescatando del olvido y devolviendo al lugar que merecen infinidad de vestigios y fortalezas hasta ahora olvidados, que hoy son símbolo de resistencia y un clamor de que, siglos después, seguimos en pie.

**Tras visitar en sus obras a los vascones y a Sancho el Fuerte, ¿qué nuevos proyectos tiene en mente? ¿A qué época quiere trasladar a los lectores en su nueva novela?**

Lo único que puedo decir es que permaneceremos en el siglo XII... y que continuaremos siguiendo la estela del águila negra.

Gara



# Oldarraldia eta harresia

## Eneko Bidegain

Ingalaterrara joan banendi bizitzera, norbaitek uste du lan publiko bat eskuratuko nukeela ingelesik jakin gabe? Lortuko nuke zerbitzu publikoetan lan egitea Alemanian, alemanik jakin gabe? Frantziara joanez gero, hartuko nindukete udal liburutegi batean, frantsesik ez baneki? Espainian izan ninteke zerga-etxeko langile, ez banintz gai espainolez mintzatzeko? Eta Euskal Herriko zati kontinentalean lan egin daiteke frantsesik hitz egin gabe? Eta zati penintsularrean, euskara ofiziala den lekuetan barne, aurkez ninteke lan publikoetarako lehiaketetara, espainieraren ezagutzaren ziurtagiririk gabe?

Galdera erretorikoak dira, bistan da. Eta denek badakigu erantzuna. Baina ez dugu zalantzan jartzen. Inork ez du salatzen espainiera eskatzea neurri arrazista dela Afrikatik datorren batentzat, adibidez. Ez du salatzen, eta ez du ikusten errealitate hori badenik ere. Ez zaio burura etortzen badagoela Euskal Herriara etorritako jende multzo bat lanpostu askotarako edo ia guztietarako sarbiderik ez duena, ez euskara ez jakitea-

gatik, baizik eta espainiera ez jakiteagatik!

Baina, kasu! Baztertzaila dena da euskara eskatzea! Hori da arrazakeria! Gaiztoak gu gara, oldarraldi judizialarengatik haserretzen garelako. Gaiztoa ez da hemen sortu, eskolatu eta euskara ofiziala den berrogei urte pasa hauetan euskara ikasteko indarrrik egin ez duena, bide batez euskarari balioa kentzen diona eta horregatik hizkuntza eskakizunaren gaia minberatzearen erantzule handia dena.

Oldarraldi judizialarena borroka konkretu bezain simbolikoa da. Auzitegietan errekurtsoak aurkezten dituztenak dira borroka abiatu zutenak. Euskararen kontrako borroka, euskararen ofizialtasunari gero eta muga gehiago jartzea helburu duen borroka, nahiz eta beste argudio batzuekin makillatu. Zeren eta norbaitek uste ote du senegaldar bati udal-lorategietan lan egiteko baimena ukatzen badiote espainiera ez jakiteagatik eta horren kontrako errekurtsoa aurkeztuko balu auzitegian, arrazoia emango lioketela?

Dudarik gabe, euskararen kontrako oldarraldia borroka guztiz politikoa da. Oldarraldi hori geldiaraztea ere bai. Etsigarria da euskara ia mende erdi honetan ofiziala den eremuan, garai bateko (ustezko) lorpenak zalantzan izatea eta berriz ere horien alde borrokatu behar izatea, beste zeregin anitz daukagun garaian. Baina harresi inportantea da. Harresi hori pitzatzen ari dira espainolistak (eta gisa biziki intrantsigentean diot espainolistarena: euskarari mugak jarri nahi dizkiona —eta espainierari ez— ezin da euskaltzaleztat jo; «ez naiz arrazista baina...» edo «ez naiz ez matxista, ez feminista» erratea bezala da «euskararen alde nago, baina ez da ongi lanerako eskatzea» erratea). Harresia zulatzen bada, itsas-ekaitzari traba egiten dion dikea erortzen da.

Hain zuzen ere, zein da gisa honetan zabaltzen den mezua? Zein da haurrek jasotzen dutena? Hemen berdin-berdin eta lasai-lasai bizi daitekeela euskara jakin gabe. Haurrak ez dira ergelak: ederki ohartzen dira eskolako hizkuntza horri zein balio guti ematen zaion eskolatik kanpo. Hizkuntza-eskakizun

auzian amore ematen badugu, haur horiek are gutxiago sentituko dute ikasteko beharra. Ederki ohartzen dira, ordea, espainiera ikasi behar dutela. Eta horrek kate luze bat aktibatzen du: lehenik, euskaraz eta euskara irakasteko ardura duten irakasleen lana are gehiago zailtzea, nerabeen berezko arazoak kudeatzeaz aparte, irakasten duten horren prestigio faltak beren autoritatea, eta beraz motibazioa, bera zalantzan jartzen duelako.

Euskararen alde lan geldiezin honetan zeregin anitz dago, auzi honetaz gain. Laneko hizkuntza izatea ez da nahikoa, aisialdikoa, lagunartekoa eta gizartekoa ere izan behar baita, euskal (euskarazko) kultura ezagutarazi eta sustatu behar den modu berean. Baina serio aritu nahi bada, irmoak izan behar dugu. Ez da hizkuntza-politikari buruzko adostasun politikorik posible marra gorri batzuk jarri gabe. Oldarraldiaren auzian, hizkuntza-eskakizunak murriztea (beste gai bat da hizkuntza ezagutza bermatu behar den tituluaren bidez, lan-elkarrizketa batean edo beste), justifikatzen duten

alderdi politikoak ez daitezke aliatu fidagarri kontsidera euskararen aldeko balizko politika baterako. Haien arabera, euskaldunak gutxiengoak gara Euskal Herrian, eta ez da justua gutxiengo horren hizkuntzak hainbesteko boterea izatea. Hots, zinizismo ariketa ikaragarria egiten dute. Hamarkadetako zapalkuntza gogor baten ondorioz gutxitutako hizkuntza baten eta hitzunen eskubideak mugatzea defendatzen dutenean, zapalkuntza horretaz baliatzen dira. Zapalkuntza hori betikotzen dute. Ez zaie burutik pasatzen erreparazio historikoa zor zaiola euskarari, eta baliabideak jarri behar direla horretarako. Ez; euskara beti izan dadila mugatua. Ez gauden frankismo garaian, beraz ezin gara kexatu. Ez gaituzte jotzen, zokoratzen bakarrik, eta horrekin konformatu behar dugu. Zer irudituko litzaiguke senarrak jotzen duen emazteari norbaitek honakoa gomendatuko balio: «Dibortziatu baino hobe duzue akordio batera heltzea, ez zaitzan gehiago jo... [baizik eta iraindu eta mespretxatu bakarrik] [...uzten baduzu beharbada hilko baitzaitu]»?...

### Berria

Segi webgunean irakurtzen: [www.nabarraide.eus](http://www.nabarraide.eus)

# Euskararen mende magikoak

## Pako Sudupe

Euskaltzale irudikatzen zaitut, irakurle!; beharbada, nire moduan, euskararen etorkizun hurbilaz kezkatuago zaude izan dugun iraganaz baino. Halere, nago euskararen iraganaz ere jakin-min poxi bat izango duzula. Itzulunguruak alde batera utzita, zure ustean, irakurle, arabar, bizkaitar eta gipuzkoarren euskalduntze berantiarra da euskararen iraganari buruzko teoriarik ziurrena, probableena, errealitate iraganetik hurbilen egon litekeena? Horixe entzun eta ikusi ahal izan duzu ETBn!

Teoria horren arabera, Kristo ondoko V. eta VI. mendeetan, erromatarren inperioa desegin zenean, Akitanian bizi ziren leinu edo tribu euskaldunak Nafarroa Garaira igaro ziren merovingio eta bisigodoen erasoetatik ihesi, egun Nafarroa deitzen duguneko kokatzeko, garai hartan botere politikoaren aldetik han hutsunea zegoelako.

Teoria horri jarraikiz, akitaniar leinu edo tribu euskaldun haiek indoeuropar hizkuntzaren batean mintzo ziren baskoiak, hizkuntza zeltaren batean hortxe nonbait, euskaldundu zituzten (bor-

txaz, sedukzioz, edo bortxaz eta sedukzioz, biak batera), eta hegora ez ezik mendebaldera jo zuten, han ere hizkuntza zeltetan mintzaten omen ziren arabar, bizkaitar eta gipuzkoarren arbasoak euskaldunduz (bortxaz, sedukzioz, edota bortxaz eta sedukzioz).

Teoria horren alde omen daude Koldo Mitxelenaren Euskara Batu Zaharra, protobasco delakoaren hipotesia, eta dialektoen modernotasunarena.

Hori hala izatera, ez dakit zuri, irakurle, baina niri behintzat goitik behera jausiko litzaidake akordua dudanetik izan dudan uste aski sendoa: latina baino askoz lehenago ere gure arbasoak txor-txor euskaraz mintzo ohi zirela aspaldixotik hasita, orain dugun baino lurralde zabalxeagoan, eta jakina, eboluzio historiko aski naturala izan zutela, handiko eta hemendiko maileguak hartuz, eta garai bakoitzari zegokion eboluzio normal samarra izanik.

Liburuaren egile den Juan Martin Elxpuruk irizten dio euskalduntze berantiarren defendatzaileek desegoki

ulertu dutela, modu gotorregian, Koldo Mitxelenak kautela handiz eta testuinguru «politiko-linguistikoa» jakin batean —EAn euskara batuaren aurka zeudena konbentzitzeko edo—, modu leunean proposaturiko protobasco-aren hipotesia, eta horregatik heldu direla pentsatzera delako batu zaharrean mintzo zirenak mendebaldera hedatzean zatikatu zela euskara, hango biztanleek hitz egiten zituzten bestelako hizkuntza substratuen eraginez (hizkuntza zeltak segur aski).

Elxpururen iritzian, askoz probableagoa da euskararen zatiketa dialektala erromatar inperioaren gainbehera edo desegitea baino zaharrago izatea, eta akitaniar euskaldunen inbasioagatik ez, baizik eta erromatar kronikariek eta izendaturiko baskoi (nafar nagusiki), barduliar (gipuzkoar nagusiki), eta karistiar (bizkaitar nagusiki) leinuen zatiketagatik sortua izatea, eta halaber, Eliza katolikoak haietan funtsaturik moldaturiko elizbarrutien eragin axolazkoagatik —segur aski apaizen hizkuntza jardunak izan du eragin handiena herritar xehe letragabe-

koengan, eta goi mailako jende alfabetatuaren artean, aldiz, hizkuntza erromantzeek—, eta ia gaur arte, euskara batu modernora arte, aldaketa handirik gabe bizirik iraun izana, nagusiki bi arazoirengatik: bata, euskaldunen kontzientziagatik, eta bestea, inguruan hizkuntza ordezkapenerako egun baino askoz bitarteko kaxkarragoak zituztelako auzo herri edo estatuek.

Koldo Mitxelenak modu leunean proposatu zuen euskara batu zaharrik inoiz inon egon ote da?; egon bada, zein boteretan oinarriturik hedatu zen, Iruñeko edo Nafarroako estatuan? Denok dakigu nafar erresumaren administrazio hizkuntza ez dela inoiz euskara izan —badirudi nafar funtzionarioek bazekitela euskaraz, eta ahoz elebakarrek erabili ere egingo zuten, baina idatziz ez!—; hizkuntza erromantzeetan idazten zirela administrazioa idazkiak.

Lehenago ere esan dut, apaizen eragina izan zitekeela erabakigarriena euskalkiak finkatzeko garaian, baina haiek ere euren herritarren hizkuntzan oinarriturik, hura zertxobait jasorik eta

euskalki batuan, onenean, erromantzeetara jotzen ez zutenean alegia, eurak ere gaztelaniaz eta frantsesez eskolatatuak izan ohi baitziren, eta ez euskaraz.

Euskalkien arteko aldeak handiak dira? Noiz nola! Esate baterako, gure aitak, azkoitiarra izaki, harreman dezente izan zuen mendebaldeko euskalkietan mintzo zirenekin (eibartar, otxandiar, are bermeotarrek ere bai) eta ez nion inoiz entzun bizkaiera ulertezina zitzaionik, nahiz bermeotarrena, kasurako, berezia gertatzen zitzaion. Gaur egun neurtu ere egiten da distantzia linguistikoa. Arabako Aramaioren eta Zuberoako Altzürükuren artean %60,56koa omen da; Lemoizen eta Eskiularen artean %66,56koa; eta Aramaioren eta Amezketauren artekoa %43,52koa. Konparatistentzat, aldeak ez dira handiak, baina herritar arruntentzat aldeak nabariak dira, eta gaztelania edo frantsesa ikasi ahala, haietara jotzeko isuria, gero eta handiagoa.

### Berria

Segi webgunean irakurtzen: [www.nabarraide.eus](http://www.nabarraide.eus)

# Eguneko argazkia

## Euskal pilota, nafar ondarea

A lo largo de octubre Nabarralde ha organizado un congreso, con distintas actividades, en torno a la pelota vasca: Euskal jai, kultura, nortasuna eta kirola. Cultura, identidad y deporte.

La pelota, desde hace muchos siglos, ha movido muchos resortes de la existencia vasconavarra, hasta el punto de considerarse una de las expresiones más notorias de su identidad. Ha dibujado el terreno de juego del ocio, el ejercicio, la amistad, la convivencia, y en ello ha sido piedra de toque de la integración social. Su arraigo entre las gentes le ha llevado a invadir pórticos de iglesias, soportales de ayuntamientos y paredes de ocasión, sin carnet de identidad.

Pero más allá de la diversión, la fiesta o el tiempo perdido, su centralidad en la vida colectiva ha condicionado el diseño de la arquitectura y el urbanismo local. Todos conocemos la cantidad de poblaciones que han construido sus plazas en torno al espacio de la pelota. El frontón, en ese sentido, ha ocupado un lugar preferencial de los pueblos y ciudades, compitiendo con la iglesia o el edificio consistorial. Y luego ese espacio ha servido de escenario multiusos para las necesidades del día a día: campo de juego infantil, fiestas, espectáculos, música, baile, comidas multitudinarias, manifestaciones políticas... También las comunidades han tenido su txoko particular: Jito Alai (frontón de gitanos, Iruñea), Agurain (de los judíos). El paisaje de nuestros municipios le debe tributo a las paredes del frontón (en todas sus variantes) y a esa centralidad espacial. Incluso el arte ha merodeado por estos prosccenios: Oteiza (y sus reflexiones); Chillida; Lazkano; Arrue...

Paisaje local, urbanismo, oficios (artesanos de la pelota, cesteros...), deporte, cultura, identidad. La pelota vasca es lugar de memoria de nuestra colectividad vasconavarra.



Argazkiak uzteagatik, Iñaki Uriarte, Iñaki Agirre eta Tiburtzio Arraztoari gure eskerrik beroenak.

## Irlandako bide galduetan

Joxe Manuel Odriozola

Noiz hartu genuen euskaldunok Irlandako galbidea? Irlandan bertako gaelikoa berreskuratzearen aldeko politiken galbide bertsuetan omen gabiltza euskaldunok. Arantxa Iraolak Conchur o Giollagaini egindako elkarrizketan irakurri dugu.

Hauxe dio hitzez hitz: «Igual Euskal Herriko agintariak gutxietsi egingo dute Irlandan gertatzen ari dena: 'Gu ez gaude horrela', esan dezakete. Baina han egiten denaren antzeko gauzak egiten ari dira hemen».

Han eta hemen bertako hizkuntza nazional gutxietsi eta baztertuaren aldeko «politika sinbolikoa» egiten omen da. «Baikortasun faltuan» oi-

narritua. Euste politika ere badarabil itxurakeriazko hizkuntza politika sinboliko engainagarria izendatzeko. «Diglosia bikoitza»-ren esapidea ere aipatzen du adituak euskararen egoera definitzeko. Bien bitartean, han eta hemen hizkuntza maioritarioko alderdiek «onartu eta edo toleratu egiten dituzte [bertako hizkuntzaren alde hartutako neurriak], badakitelako sinbolikoa dela dena, eta hori ez doala inora».

Gure Iparraldean egiten ari diren hizkuntza politika publikoak definitzeko ez legoke modu egokiagorik. Orobat Hegoaldean egiten den hizkuntza politika ofiziala definitzeko ere aski zuzena da. Izan ere, batean zein bestean

egitura soziolinguistikoren statu quo iraultzeko ez asmorik ez borondaterik duen glotopolitika baita nagusi Euskal Herri osoan. Botere soziolinguistikoren oinarriko egiturak dauden-daudenean utzita egiten den hizkuntza politika baita gurea. Botere soziolinguistiko bidegabeari men egiten diona.

Azaleko faktore errazetan oinarritutako glotopolitikak omen dira Irlandan eta hemen indarrean daudenak. Sinbolikoak eta xaloak. Errealitatea «ukatzen» duen ideologia negazionistaren ezpalekoak. Zinezko botere soziolinguistikoren «zutar aski sakonkin» zerikusirik ez dutenak. Hori dio O Giollagainek. Ondorioa berez mintzo da:

«Hizkuntza gutxitu sendoenak ere, katalana, euskara eta galesa, krisian daude; beraz, horrek esan nahi du zerbait oker dagoela diagnostikoan, eta zintzo jokatu behar da hiztunekin, alde handia ikusten baitute zer esaten den eta zer gertatzen ari den».

Irlandako eta Euskal Herriko agintariak negazionistak omen. Mendekotasun soziolinguistikoei bizkarra emanda bizi bide dira. Ez dira gai errealitate soziolinguistikoa bere gordinean hautemateko. Ez dute hango eta hemengo hizkuntza nazionalen egoeraz zinezko diagnostiko bat egiteko kontzientziarik. Beste era batean esanda, agintari asimilatuak lirakeke ideologia nazionalari dagokionez.

Hizkuntza eta kultura politika kolonialaren uztarripean bizitzeak ez dielako ondoeziek eragiten. Hizkuntza eta kultura arrotzaren hegemoni(s-mo)ak ez die ezinegonik sorrarazten. Bertan goxo, beraz.

Ados. Baina nazio asimilazio kolonialaren zurrunbiloak ez ditu nazio zapalduko agintariak soilik irensten. O Giollagainek dio «zintzo jokatu behar» dela «hiztunekin», horiek gai omen dira agintariak esaten dutena eta egiten dutena bereizteko...

**Berria**  
Segi webgunean irakurtzen:  
[www.nabarralde.eus](http://www.nabarralde.eus)

## Vida y obra de uno de los personajes más decisivos de la Navarra del siglo XX

### Joseba Asiron

Apoyó la criminal guerra de Marruecos, abogó por la implantación de la censura y se manifestó contrario a la escuela laica, al sufragio universal, a la democracia y al parlamentarismo

Raimundo García nació en Madrid el 15 de marzo de 1884, hijo único del matrimonio formado por el leonés Rafael García y la gallega Irene García. Su padre fue combatiente carlista en la guerra de 1872-1876, por lo que tras la derrota hubo de exiliarse algunos años en Francia. Raimundo estudió Bachillerato en el instituto San Isidro de León, y tenía intención de cursar luego la carrera de Derecho en Madrid, pero la muerte temprana del padre terminaría por trastocar un tanto sus planes. Según destaca uno de sus biógrafos, Roberto Zamarrigüe, de esta etapa madrileña datan los primeros contactos con Navarra, puesto que se alojaba en la pensión que allí tenía una mujer de Tafalla, y poco después realiza sus primeros trabajos remunerados para el también navarro Lázaro Galdiano, haciendo traducciones del francés, idioma que había aprendido del padre. Tras la muerte de su progenitor, Raimundo había quedado bajo la orientación de un tutor, el periodista Antonio de Balbuena, de ideología carlista como el padre y paisano

suyo. Es posible que Balbuena se apercebiera pronto de las dotes de su pupilo, porque cuando tiene 18 años lo envía a trabajar como redactor en el periódico más importante de Pamplona, "El Eco de Navarra", realizando crónicas teatrales y musicales. Según varios autores, Raimundo García llegó a Pamplona el 9 de noviembre de 1902, en una diligencia de caballos, y de inicio se alojó en una habitación del hotel La Perla.

#### De "El Eco" a "El Diario"

Raimundo permanece nueve años en "El Eco de Navarra", hasta 1911, y luego pasa a "Diario de Navarra", periódico emergente en aquel momento. Las razones para el cambio parece que fueron puramente económicas, e incluso contempló la posibilidad de aceptar otra oferta de un diario de Vigo. Sea como fuere, García entró con muy buen pie en Diario de Navarra, y la prueba es que fue nombrado director al año siguiente, con motivo del encarcelamiento de su anterior titular, Mario Ozcoidi, acusado de incitación a la rebelión. El nuevo director tan solo tiene 28 años, y para este momento ya firma sus artículos con los seudónimos que utilizaría toda su vida, "Amezitia" y especialmente "Garcilaso". Respecto al origen del segundo de los nombres

no hay duda, pero el primero podría provenir del euskara "ameztia" (melojar) o, más probablemente, ser una mala traducción del término vasco "amestia" (literalmente, "el soñador").

Esta migración física de sus inicios en "El Eco" a su madurez profesional en "Diario" irá además acompañada de una radical transformación ideológica. En sus inicios, Garcilaso se mostró cercano a planteamientos políticos euskaltzales. Según el periodista Iván Giménez, que es probablemente quien mejor ha estudiado su trayectoria, en estos primeros años el mentor ideológico de Garcilaso no es otro que el "napartarra" Arturo Campión, y es frecuente leer de su mano expresiones de admiración hacia la cultura vasca de Navarra y hacia el propio euskara, que definía como "la gallarda expresión de nuestra raza legendaria". A partir de 1917, sin embargo, Garcilaso experimenta un giro ideológico muy acusado, adopta ideas derechistas deudoras del españolista Víctor Pradera, y hará suyo un sesgo antivasquista que roza lo patológico. Así, cuando en 1923 se propone la creación de una banda municipal de txistularis, Garcilaso se opone refiriéndose al txistu como "esa música vasca que sonará muy bien, pero que no es la nuestra".

#### Ascenso al Olimpo

En 1921 y poco después del denominado "Desastre de Annual", Garcilaso se embarca como corresponsal al frente de Marruecos. No fue el único periodista navarro que fue allí, pero tuvo la habilidad de moverse como pez en el agua en aquel ambiente. Contacta con soldados navarros y les ayuda a intercambiar mensajes públicos con sus familias, lo cual dará gran popularidad a sus artículos. Además, el periplo africano facilitó que conociera a buena parte de la élite militar africanista, lo cual le vendría muy bien en sus futuras conspiraciones contra la República. Entre sus amistades se contarán el futuro coronel Beorlegui, los generales Berenguer, Mola y Sanjurjo, y el propio Francisco Franco, al que se refiere como "un jovencito moreno y lindo, el más valiente y duro de los legionarios de su bandera". Su papel como corresponsal, loado "ad nauseam" por la derecha, trajo consigo que Garcilaso fuera recibido a su regreso en olor de multitudes, y que incluso se le nombrara Hijo Adoptivo de Navarra, a pesar de la oposición de amplios sectores, incluido el Ayuntamiento de Pamplona. Ello nos da muestra de la enorme fuerza e influencia que para entonces habían cobrado ya el "Diario" y su propio director.

#### Hacia la dictadura

El discurso filofascista de Garcilaso, y por ende del "Diario", se irá haciendo más evidente con el paso del tiempo. Saludó el advenimiento de la dictadura de Primo de Rivera con un "¡ya era hora!" en primera página, y lamentó el regreso de la democracia tras su caída en 1930. Conspiró en la sombra para evitar la implantación de un estatuto de autonomía común para las cuatro provincias vascas, a pesar de que los ayuntamientos navarros habían votado repetidamente en su favor. Desde sus editoriales de Diario de Navarra clamó contra la democracia y el parlamentarismo, exaltando el fascismo italiano y el nazismo alemán. Y desde su condición de diputado electo al Congreso por Navarra conspiró contra la República, haciendo de puente entre Mola, Sanjurjo y otros generales golpistas, coordinando a sectores carlistas y falangistas, a los que atrajo a la conspiración, y convirtiéndose, en definitiva, en el principal agente civil del golpe de estado del 18 de julio de 1936...

#### Noticias de Navarra

Continuar leyendo en la web:  
[www.nabarraide.eus](http://www.nabarraide.eus)

# Eman izena nabarkide izateko Hazte socio de Nabarraide



Nabarralden lantzen ditugun edukiak gustoko badituzu, sustatzaile egitera gonbidatzen zaitugu. Indartsuago izango gara elkarrekin gure memoria kolektiboa berreskuratu eta nortasuna sendotzeko bidean.

nabarraide.info@gmail.com · (34) 948 21 10 57 · Bidankoze kalea 3 · 31014 · Iruñea/Pamplona/Pampelune  
NAFARROA-NAVARRA-NAVARRA · DLNA: 2449/2005 · ISSN 1885-2181

Izen - abizenak Nombre y apellidos:		
Helbidea / Dirección:	Herria / Población:	
Posta kodea / Código postal:	Hizkuntza / Idioma:	
E-mail:	Tel: Mugikorra / Móvil	Finkoa / Fijo
Kuota / Cuota (14€ Hilero / Mensuales) • 35 urtez azpikoek / menores de 35 años (10€ Hilero / Mensuales)	Erakundeak / Entidades: (Hitzarmenaren arabera / Según convenio)	
Kontu zenbakia / N° de cuenta (IBAN 24 dígito):	ENA / DNI:	